DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

IVAP

- Hirigintza-ikastaroko ikasleentzako dirulaguntzak, erakunde publikoetan edo enpresetan praktikak egiteko 2
- 2025-2026ko aldirako Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruko gaiei buruzko ikerketa sustatzeko dirulaguntzen deialdia..... 4
- «Jesús María Leizaola» sariaren deialdia egiten duena, euskal autonomia edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten erronkei aurre egiteko gobernantza publikoa xede duten ikerlanetarako..... 6
- Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak 8

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Hirigintza-ikastaroko ikasleentzako dirulaguntzak, erakunde publikoetan edo enpresetan praktikak egiteko

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 19koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskolaren (EVETU) «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak L. (50.) Ikastaroari» lotutako praktiketarako beken oinarriak onartu eta haien deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 19koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskolaren (EVETU) «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak L. (50.) Ikastaroari» lotutako praktiketarako beken oinarriak onartu eta haien deialdia egiten duena.. Boletín Oficial del Pais Vasco (EHAA 240 zk; 2025eko abenduak 12)

Esleipena:

EBAZPENA, 2026ko apirilaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez esleitzen baita Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU) antolatutako L (50) Hirigintza eta Lurralde Ikastaroan (2024-2025) aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldia». Boletín Oficial del Pais Vasco (EHAA 69 zk; 2026ko apirilak 15)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburu nagusia da «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak» Ikastaroko (2024-2025) ikasleek hirigintza-arloan eskuratutako ezagutzak aplika daitezen sustatzea eta bultzatzea, erakunde publikoetan edo enpresetan praktikak eginez hiru hilabetez, gutxi gorabehera.

EVETUk* urtero egiten du «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak» ikastaro modularra, 1992az geroztik. Ikastaro horren baitan, diruz lagundutako praktika batzuk egiteko aukera sartzen da, ikasleek ikasitako guztia praktikan jar dezaten, harrera-entitateetan irauliz (erakundeak eta enpresak izan daitezke, baina gehienbat toki-erakundeak izan ohi dira), eta, horrela, erakunde horiek hartzen dituzten ikasleak ez ezik erakundeak ere aberastu ahal daitezke (ikasleak hirigintzaren eta lurralde-antolamenduaren arloan prestatzen baitira; prestakuntza administrazio publikoaren barneko zein kanpoko profesionalen eskutik jasoz, legeria berrienaren abangoardian). Praktikaldi hori 420 ordukoa da, eta hirigintza-arloan 48 hilabete baino gutxiagoko esperientzia duten ikasleei zuzenduta dago. Praktikaldia dirulaguntza-lerro baten barruan kokatzen da (30.800,00 eurokoa guztira, Gizarte Segurantzaren gastuak barne). Lerro horren arabera, ikasle bakoitzak 3.105,00 eurora arteko dirulaguntza jaso dezake, gehienez, praktika horiek egiteagatik.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Ikastaro honetarako bi eskaera egin dira. Badirudi administrazioetara sartzeko prozesu asko deitu direnez, eskaera gutxiago egon direla, ikasleak prozesuak prestatzen ari direlako edo denbora-tarte horretan administrazioan sartu direlako.

3. apartatuan azaldutakoaren arabera, aurretiazko izapidetzearen araubideari lotutako deialdia izanda, 2025aren amaieran argitaratu bada ere, aurrekontu-betearazpena 2026an zehar egingo da, eta adierazleen* emaitzak (6. apartatua) aurten neurtuko eta ikusiko dira.

Gizarte-erabilgarritasunari eta -eraginari dagokionez, nabarmentzekoa da hirigintzan, lurraldean eta ingurumenean espezializatutako langileak behar dituzten zentro, profesional eta erakunde publiko eta pribatuekin lotura handiagoa izatea errazten dela.

Erdi-jarduera profesionala garatzen da praktiken bidez, erakunde publikoetan hirigintzaren errealitatea eta kudeaketa "in situ" ezagutuz, aholkularitza-lan batzuk eginez edo proiektu profesional batean sartuz 3 hilabetez, gutxi gorabehera. Horrek eragin handia du hirigintza-esperientziarik ez duten EVETUko Hirigintza modularreko ikastaroko diruz lagundutako ikasleentzat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako pertsonen kopurua	2	2

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2025-2026ko aldirako Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruko gaiei buruzko ikerketa sustatzeko dirulaguntzen deialdia.

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko uztailaren2koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez bi dirulaguntza emateko deialdia egiten baita, 2025-2026ko aldian, Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruko azterketak eta ikerketak egiteko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia

Ebazpena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza honen helburua da, Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruko gaiei buruzko ikerlanak egitea eta ikerlan horiek adiera ematea, administrazioak eta gizarteak bere ekarpenak jasotzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025-2026ko deialdian ikerketa-proiektu bakarra aurkeztu zen. Balorazio Batzordeak egindako balorazioarekin bat etorriz, IVAPeko zuzendariaren 2025eko urriaren 30ko ebazpenak lehen fasean aurreikusitako dirulaguntza bat esleitu zion honako proiektuari:

«El sector público vasco: de la asignación de recursos a la prestación de servicios. Un modelo de evaluación de las políticas públicas en el ámbito financiero», Nerea Urrutia Torrealdaik eta José Ignacio Ansoategui Fernández de Arroyabek egindakoa.

Era berean, ebazpenak hutsik utzi zuen aurreikusitako beste dirulaguntza.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Jasotako eskaeren kopurua	5	2
Ikerketa-taldeen modalitatean aurkeztutako proiektu ehunekoa	---	% 100
Banakako modalitatean aurkeztutako proiektuen ehunekoa	---	% 0
Eskainitako laguntza bakoitzeko deialdian onartutako proiektuen ehunekoa.	---	% 100

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko ikertzaileak dituzten proiektuen ehunekoa.	---	% 0
Deialdian onartua izateko baldintzak betetzen dituzten eskaeren ehunekoa	% 100	% 100
Esleitu diren eskainitako dirulaguntzen ehunekoa	% 100	% 50
Deialdian esleitutako dirulaguntzen jasotako uko eginiko ehunekoa.	% 0	% 0

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

«Jesús María Leizaola» sariaren deialdia egiten duena, euskal autonomia edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten erronkei aurre egiteko gobernantza publikoa xede duten ikerlanetarako

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 28koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, 2025eko «Jesús María Leizaola» sariaren deialdia egiten duena, euskal autonomia edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten erronkei aurre egiteko gobernantza publikoa xede duten ikerlanetarako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia
Esleipenaren Ebazpena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2025eko «Jesús María Leizaola» sariaren helburua da euskal autonomia, euskal autogobernua edo Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendua, edo/eta globalizazioaren, eraldaketa digitalaren edo klima-aldaketaren erronken edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuei aurre egiteko gobernantza publikoari buruz egindako ikerlanak sustatzea eta zabaltzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Sariak:

- Ikerketa sustatzen du edozein ikuspegi zientifikotatik: euskal autonomia, euskal autogobernuari, EAEko lurralde-antolamendua eta/edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuen gobernantza publikoa.
- Arlo horietan egindako ikerlanen zabalkundea bultzatzen du.

2025eko «Jesús María Leizaola» saria eman zaio Xabier Arzoz Santisteban jaunaren «Las normas forales de los Territorios Históricos» lanari.

Eta akzesita eman zaio David Fernández Rojo jaunaren «De Europa a los municipios vascos: gobernanza multinivel y participación ciudadana el reasentamiento de personas refugiadas» lanari.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Leizaola saria deialdira aurkeztutako hautagaien kopurua	5	3
Leizaola saria ematea	1	1
Leizaola saria akzesita ematea	1	1
EAEtik eta Nafarroatik kanpo bizi diren Leizaola sariaren hautagaiak	1	1
Leizaola deialdian aurkeztutako lanak, saririk gabekoak baina argitaratuak	1	0
Leizaola saria deialdian ezarritakoarekin bat datozen aurkezturiko lanak	%100	%100

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 29koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioetako eta foru-administrazioetako enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen oinarri erregulatzaileak onartzeko eta deialdia egiteko.
EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 13koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko (IVAP) zuzendariarena, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak 2025eko ekitaldian langileak prestatzeko egindako planak edo programak finantzatzeko aldez aurretik ordaintzeko dena, justifikazioa egin aurretik.
EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 13koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko (IVAP) zuzendariarena, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak 2025eko ekitaldian langileak prestatzeko egindako planak edo programak finantzatzeko aldez aurretik ordaintzeko dena, justifikazioa egin aurretik.
EBAZPENA, 2025ko maiatzaren 13koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko (IVAP) zuzendariarena, Hezkuntza Sailak 2025eko ekitaldian langileak prestatzeko egindako planak edo programak finantzatzeko aldez aurretik ordaintzeko dena, justifikazioa egin aurretik.
EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 13koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko (IVAP) zuzendariarena, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak 2025eko ekitaldian langileak prestatzeko egindako planak edo programak finantzatzeko aldez aurretik ordaintzeko dena, justifikazioa egin aurretik.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/08/2503499e.shtml (deialdia)
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/01/2600420e.shtml (ematea)
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/01/2600421e.shtml (ematea)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza-programa honen helburua da ahal den erakunde publiko guztietan prestakuntza-plan edo programen ezarpena sustatzea eta finkatzea. Bestalde, aurkeztutako prestakuntza-plan edo -programek analisi edo diagnostiko batean oinarritu beharko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten langileen prestakuntza etengabeko garapenean eta egokitzapenean dauden kalitatezko zerbitzu publiko batzuk eskaintzeko ezinbesteko elementutzat hartzen dugu. Bestetik, EAEko toki- eta foru-administrazio askok —bereziki udalerri txikienek— aurrean dituzten aurrekontu-mugak aintzat hartzeak bultzatzen gaitu dirulaguntza-programa hau urtez urte abian jartzera.

Lortutako emaitzei eta aurrekontuaren gauzatzeari dagokienez, programa honek bermatzen du esleitutako aurrekontu-partiden exekuzio-maila oso altua izatea, baliabide publikoak modu efizientean banatuz. Horri esker, urtero ia 20.000 enplegatu publikorengana iristea lortzen da, euren gaitasun teknikoak zein digitalak gaurkotzea ahalbidetuz.

Gizartean duen eragina zuzena eta positiboa da: ondo prestatutako langile publikoek administrazio arinagoa, gardenagoa eta herritarren beharrei hobeto erantzungo dien zerbitzu bat bermatzen dute. Bereziki, eraldaketa digitalari lotutako prestakuntzak eten digitala murrizten laguntzen du administrazioaren eta herritarren arteko harremanetan, zerbitzu publiko irisgarriagoak lortuz.

Azkenik, genero-ikuspegiari dagokionez, dirulaguntza-programa honek eragin nabarmena du emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustapenean. Alde batetik, justifikazioetan jasotzen diren datu guztiak sexuaren arabera banakatuta eskatzen dira, administrazioko langileen trebakuntzan egon daitezkeen arrakalak identifikatu eta neurtu ahal izateko. Bestetik, entitateei eskatzen zaie euren prestakuntza-planetan berdintasun-gaitasunak txertatzea, langile publikoak ahalduntzeko berdintasun-politiken aplikazioan eta indarkeria matxistaren prebentzioan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Dirulaguntza jaso duten erakundeen kopurua (udalak): 35

Egindako prestakuntza-planen kopurua (udalak): 22

Parte-hartzaile kopurua (pertsonak): 11.202 (Udaletako langile onuradunak).